

AMA BIRGIÑAREN  
SORTZE CHIT GARBI

ETA


MANCHAREN CUTSAURIC GABECO ALABAEN

CONGREGACIONA

Billera santu onetacoac  
berari eguiten dlozcaten bisitetaraco  
Liburuchon



ATV  
18 943



**AMA BIRGIÑAREN  
CONGREGACIÓCO  
LIBURUCHOA**

新編和漢書

卷之三

M-8626

R-36276

AT  
1894

# AMA BIRGIÑAREN SORTZE CHIT GARBI

ETA

MANCHAREN CUTSURIC GABECO ALABAEN

CONGREGACIOA



Billera santu onetacoac  
berari eguiten diozcaten bisitetaraco  
Liburuchoa



OBISPADO DE VITORIA.-Gobierno eclesiástico.  
Damos nuestro permiso para la impresión y publicación del librito titulado «*Ania Birgiñaren sortze  
chit garbi eta mancharen eut-urie gabeko alabaen  
Congregacioa: Billera santa oneta oac Berari eguiten  
diozcaten hisitetarneko Liburuchoa*» mediante a que  
no se contiene en él cosa alguna contra la fe católica y sana moral.

Dios guarde a V. muchos años. Vitoria 7 de Octubre de 1879.—Pablo de Yurre, gobernador eclesiástico.—Sr. D. Pedro Gurruchaga.—Tolosa.

---

## SARRERA

---

Baldiñ aih arrera ona izan bazuen mundu-eristauean. Ceru-lurretako Erreguiñ Birgiña chit Santa egunoro bisitatu eta onratzeco *Mariaren gortzaren* icenarequiñ jarria izandu zan billera santuac, non bertan sarturic daudenac nuste osoa daucaten Birgiña guciz itsaltsu orrec, berari dioten debocioaren sarrian eguiñgo diotela bisita bat beren eriotzaco orduan; ez degu cer arritu, icusten badegu beste billera santu bat jartzen dala *sortze* chit garbiaren icen gloriatzuarequiñ. Birgiñ eta Ama guciz on orregandie iriste-co gorputz - animetako garbitasunaren doai eta birtute baliosua. ;A! Billera herri onec ez du ez, hestea galduco, ezpanda serbituco du arri bere lan santuetan laguntzeco. Gauza jaquiña da, eriotz on baten prestaera, ondo bicitzea dila. ;Eta norc ez du icusten, munduan gauden bitartean gure grīña citalen gure animaren etsai cideztuac diran oen contra beti

guerran bici bear degula?  eta etsai oen artean portitzena, gogorrena, eta guizonen biotzac gueyen menderatzen dituena, garbitasunez o lore eder au loituera ci nai diguna dala? Beraz gure anima errucarria, inguratzen duten irriscu, perill eta lazoetan erori gabe gordetzeko, eta ichas aserretuac irentsi nai luquean ontzioha portu segurura becela, eriotz on batera eramateco, escu indartsu eta guari abill baten bearrean arquitzen da. Guiari abill au da Ama Birgi a, eta escu indartsu an beraren balimentu paregabecoa; eta Ama maitati onen biotza gure alde jarrieracico duen limurcairic seguruena, berari *sortee chit garbiaren* ikernekuico debocio biotz biotzecoa izatea.

Debocio au cristau errietan zabaltzen, eta nola egun  eracustera zuentzen da liburucho au, eta esqueintzen zaye mundu zabal eta garbitasuna galeracitzeko irriscuz betean sartzena dijoacen donecillachoai, jaivotzatic eriotzara o daucaten dembora laburrean, surreratu dezaten birtutean, edadean acitzen dijoacen becela, etsai galgarriac bidean jartzen dizcaten pecatuzko lazo eta sareetatic beren buruac gorderic, joan ditecen zucen ta seguru salbacioco portura.

## BILLERA SANTU ONEN ASIERA nola izan zan

---

Billera santu onetako lagunen jaquifinai edo deseoa bidezcoai atseguiñ emateko, itz guchietan esango degu debocio au nola sortu zan, cer aurrerapenac eguiñ dituen, eta orain cer egoeratan arquitzen diran.

Barcelonaco urian hici zan doncella gazte bati 1849.<sup>co</sup> Abustuaren atzen egunetan gogoratu citzayon, bere quidaco lagun eta adisquide batzuequin bildu, eta gucien artean Ama Birgiñari egunero bere *sortze chit garbico* imaginaren aurrean chandaca bisita bat egitea gucien icenean escatzeco, escudatu eta gorde citzala animen etsayac gazte inocentei pecatura eracartzeko alde gucietatic paratzen dizcaten lazo sare eta arriscuetatic. Joan citzayon confesoreari galdezera, cer ceritzayon asmo arzaz, eta confesoreac ezaguturik, gauz ura Jaungoicoagandic cotorquiona zala, ontzat eman cion, erregutuaz, lan-bide ari bertatic asiera eman ceyola, Ama Birgiñari añ atseguiñezco onra eguiteco. Doncella

etzan zabartu, eta andicau egun guchira, bere quidaco zazpi lagun arturic, jarri ciran asteoro egunean batec bisita chandaca eguitera, baña artaraco baño len, doncella gueyago bilduric, oetako bacoi-tzac asco izandu zuen illean bein bere bisita eguitea, egunneroco batena osatzico; eta icusuric, egunetic egunera lagun-nac gueituaaz cijoacela, pens-tu zuten guciaquiñ ogueita am sicaco sallac jartzea, lagun bat izan cediñ illaren egun bacoi-tzeraco, eta lagun-salleri eman cioten *coroaren* icena.

1850.<sup>co</sup> Ilibeltzean Barcelonako Obispo-ordaintza eguiten zuen Apaiz Jauric ontzat eman zuen *coro* edo lagun-sallen jertzea, baita billera santu onetako chartel eta liburichoac moldizquidatzeko bai mena ere. Uurrengo Marchioaren azquererako bost lagun sall eta erdi edo Coro osatu ciran, eta eman citzaizcan bacoi-tzari bere chartel-liburichoac, eta ordutandic urian eta campo-errietan aguertu zan billera santu onetan sartu nai eciñ audiagoa, debocio au zabaltzen zalaric batetic bestera iñorc uste cezaquean baña ascozaz azcarraigo.

Uzta illaren zazoigarren egurezki kontatzen ciran Barcelonan hi mila billera lagun, eta beste ambeste Catalunianco erribatzuetan. Egur onetan jarri zan billera santu au Barcelonako S. Felipe Ne-

ricoren Parroquian Eliz-puncio alic aundi eta ederrenarequiñ Eleizaco legueac againtzen duten eran; Obispo Jaunac meza esan eta predicatu zuen, eta Corrunio santua eman cien billera santu onetaco milla ta eun baño lagun gueyagori.

1851.<sup>co</sup> Mayetzean baceuden amabost milla lagun, etaurrego urteco Urri ille-raco gueitu ciran ogueita bi millaraño Barcelonan eta campoco beste berroguel errietan, jaquiñic, billera santu au jartzeco asmoarequiñ ceudela Espanjaco beste probintzi asco ere; eta gaurco egunean aimbeste zabaldu da Espania gucian, non ozta arquituco da erri-bildn aundizcoric, billera santu au bidezqui bertan jarria ez dagoenic.

Emencic icusten da, ceñ erraz eta azcar zabaldu dan debocio santu au bada zabaldu da berez becela, guizonen laguntza chitx guchirequin, beragatic esan guenezaque lan au gucia ez guzonena, ezpada Ama Birgiñarena dala, eta billeratxu santu onetaco lan eta debociac leyalqui eguitetic prochu aundiac eta ondore zorionekoak eracarrico dirale.



**AMA BIRGIÑAREN SORTZE  
CHIT GARBIA**

---

## **A M A   B I G I Ñ A R E N**

SORTZE CHIT GARBICO

## **BILLERA SANTUAN DAUDEN**

**D O N C E L L A I**

---

Gure Ama maite Birgifia chit santac deituac cerate, alde gucie tatic eraso eta guerraric biciena egiten zayon garbitasunezco birtute ederra indartu eta sendotze-ra. Oroitu zaitezte, Jaungoicoac eguiñ gaituela garbiac izateco San Pauloc dion becela; eta ala, zuec artu dezaquezulen lan-bideric ederren, eta gueroenean prochu eta onraric aundieng lecarquizutena da-la, eguitea lurrean garbitasunaren bidez, ceruan ainguerauac eguiten

duten antzeco bieimodua. Jaquiñ bear dezute ere, zuen inocencia engañañatu, eta ceraten gucia apaintzen zaituen ceruco lore eder ori quendu eta ostutzeco, infernuac eta mundu galduac bideric biurrenanz baliaturic, jñoiz baño aleguiñ aundiagoac oraingo demboretan eguiten dituztela, eta beragatic, loiqueriazco mostru nazcagarri onec benzutuac izatea nai ezpadetzute, erligio santuac ematen dizquitzen arma eta neurriac artu bearrean zaudetela, zuen onra eta garbitazunezco birtute balioitzu ori gorde eta escudatzeco. Oñain bada, gaurdan egunean munduan aimbeste calte eguiten, eta ecifi conta al anima infernuratzen dituen etsai aïñ bildugarri oni contra eguiteco, billera santu onetako lagun guciac bildu, eta alcarrekiñ oracio eguiñ eta batac besteari lagunduaz zuen indarrac bateratzea, izango dezute bideric seguruena eta egoquien. Onetara beartzepen zaituzte ceron

buruai ecarri bear diozuten estimacioac zuen ongreac, zuen biotz gaitzgabeac, eta zuen fedeac eta onetara zucendu bear dituzute zuen pauso, lan eta eguiñ al guciac, mundu onetan bicitza santu garbi eta birtutezkoa eguiteco eta guero ceruan, garbitazúnezko coroaz zuen buruac ornituric, Ama Birgiñarequif, Aingueru eta Santuacquif Jaungoicoaren arpegui mīragarria icusiaz beti betico doatsuac izateco. Ala izan dedilla.

## DONCELLAC AMA BIRGIÑARI erantzuten dio:

Ama, oná zure alaba.  
Ama, onà zure alaba.  
Ama, oná zure alaba.

Zugan, Ama guciz gozoa daucat jarria nere uste osoa, ez naiz egun-dañio icusico lotsatua.

## OARQUERAC

---

1.<sup>ena</sup> Billera santu onetan sartzen diran doncellac ez daucate boto edo promesic cer eguiñic; ezpada asco dute Jaungoicoari edo Ama Birgiñari esqueñi diotena cumplitzeco asmoa iduquitzea, eta ala, aztu zayotelaco, cumplitzen ez dutenean, pecaturic ez dute eguiten.

2.<sup>ena</sup> Encargatzen zaye, lagun eta adisquideen animetaco onaren contua iduqui dezatela, beren buruena becela, gaztigatuaz biguñtasun guztiarequiñ, munduco zoraquerietara emanac daudela icusten dituztenean, Billeraco lagunac

gaizqui daudenean, al izan ezquerro bisitatuco dituzte.

3.<sup>ena</sup> Billera santutic lagunen bat nola nai dala, ateratzen da-nean, parte emango zayo cargua duenari, aren utsunea beste batequiñ ordaintzeco coro edo sall ba-coitza beti oso ogueita amaica lagunequiñ egon dediñ.

4.<sup>ena</sup> Mariaren alaba guciae idu-qui bear dute beren liburuchoa, andican guia ditecen beren Ama maiteari eguiten diozcaten bisitean.

5.<sup>ena</sup> Zazpi urtetic amaicarañoco alabachoac eguin dezateque bisita laburragoal onetaraco asco izango dute *Iru Abe-Maria* errezzatuta gue-ro esatea iru bider: *Ama. oná zure alaba.* ¡O cembat balioco duen aur garbi eta gaitz gabeco ezpaiñ aetatic ateratzen dan Abe María batec!

## **BILLERA SANTU ONETAN**

### **Sarturic dauden doncellen egui-bearrac**

---

1.<sup>ena</sup> Illeoro bere chartelac señalatzen duen egunean bisitatuco du Ama Birgíñaren billera santu onetaco puncioac eguiten dira Eleiza, eta ara eciñ joan balitz, bere echean, Ama Birgíñaren imagifia baten aurrean.

2.<sup>ena</sup> Onetaraco errezatu bear ditu bost Aita gure bost Abe Maria eta bost Gloria, eta Letaniac eta Salbe bat, biotz biotzetican ezcatuaz, gorde ditzala garbi gorputz animetan. Letaniac ez da quizquienac errezatuco ditu bi Salve.

3.<sup>ena</sup> Escatuco dio eman dezyola soma on bat bere bici-esta-

dua auqueratzen, ause dalaco persona gazteac beren etorquizun one-raco daucaten eguiñiquiztunie aundienna. Eseatu ere bear du billera santu onetaco coro edo lagun sallac ugaritzeco, pecatarien onbiurreraco, eta chit bereciro oraingo demboretan iñoiiz baño lotsa guchiagorequiñ eguiten diran araguizco pecatuac oso sutua daucaten Jaungoicoaren aserre bidezcoa gozatzeco. Eta azquenik erre-gutuco du premi esturen batean arqui litezquean billera santu one-taco lagunacgatic, oetatic ill diranacgatic, eta guciaz gañ gure Españiako paque eta zoriontasunagatic, eta gure Erligio Santua gueyago eta gueyago zabaldu eta onratuagoa izateagatic.

4.<sup>ena</sup> Egunoro errezatuco ditu iru Abe Maria eta iru Gloria Ama Birgiñaren onran; baña dala debocioz, edo beste billera santuren batean sartua dagoelaco iru Abe Maria oec esaten baditu, balioco

dizcate emen againtzen diranen  
ordañez, zucenduaz bere intencioa  
billera santu onen operaco.

5.<sup>ena</sup> Illean beñ confesatu eta  
comulgatuco da billera santuac  
artaraco señalatua duacan egunean  
bere billera lagunacquiñ batean,  
baña orduan eciñ badezaque, eguiñ-  
go du beste edoceñ egunetan naiz  
astegunean.

6.<sup>ena</sup> Baita ere joan bear du,  
bere eguiñ bearrac uzten badiote,  
billera santu onetaco puncio edo  
Elizquizun gucietara bada orduan,  
beste lagunac beren Ama Maria  
chit Santa eta maitagarria onratzen  
eta alabatzen daudenen alperque-  
rian egotea, edo are gaiztoagoa  
dana munduko zoraqueri eta anima  
pecatuan amilduerazotzera zucen-  
tzen diran jolasetan ibilli eta dem-  
bora igarotzea, izango litzaque gau-  
za desegoqui bat, Mariaren alaba  
eguiazcotzat bere burua daucana  
lotsatu bear duena.

7.<sup>ena</sup> Artu bear du asmo sendo

bat, maiz berrituaz, mingatxa beti garbi gordetzeo.

8.<sup>ena</sup> Iñola ere ez da egongo aditzen itzcuntza loiric, edo ala-coen antzecoric, contuz alde eguiñaz garbitasuna loitu, edo cutsu-tu dezatequean lagun, billera eta bide gucietatic.

9.<sup>ena</sup> Itz loi edo garbitasunaren contraco esaera parragarriren bat aditzen badu, bereala biotz-biotzetic esango du: Jesus Maria eta Josè, edo Abe Maria Purísima, edo Alabatua izan dedilla Jaungoicoa, edo guis onetako beste itz on batzuec.

## **ELIZAC AGUINTZEN DUEÑ**

### **Moduan jarria dagoen Mariaren sortze chit garbiaren billera San- tuai emanac dauden Indulgentzi edo barcamenac**

---

1.<sup>ena</sup> Aita Santuac emana dauca Indulgentzi edo barcamen osoa, billera santu onetan sartzen dan eguneroako, eta irabazten da confesatu eta comulgaturic, bera jarria dagoen Eleiza bisitatzearequiñ, errezatuaz dembora pisca batean Aita Santuaren intencionraco.

2.<sup>ena</sup> Indulgentzia edo barcamen osoa billera santu onetan daudenentzat, beren azqueneco gaitzean confesatzen eta comulgatzen badira, eta au eciñ baluteque,

Jesusen icen guciz santua minganiez edo biotzez esateagatic.

3.<sup>ena</sup> Indulgentzi edo barcamen osoa, billera santu onetaco pestarie audiencio egunean, aurreco arratsaldetic pest-egun artaco eguzquia sartu arte, irabaci ditequena, confesatu, comulgatu eta Eleiza bisitatzearequifi.

4.<sup>ena</sup> Zazpi urteco eta beste zazpi berrogueico barcamenac. Obispo Jaunac señalatzen dituen urteco lau pest-egunetan; ceñac diran Ama Birgiñaren Jayotzacoa, Presentaciocoa, Eleiz-sartze eta Cerura alchatua izan zanecoa, arrestian esan diran gauzac eguiñaz.

5.<sup>ena</sup> Iruroguei eguneco barcamenac, billera santu onetacoac beren pecatuen damu eguiazcoarequiñ eguiten duten edoceñ obra onagatic.

6.<sup>ena</sup> Indulgentzi osoa, illean bibider norberac aututzen dituen egu-

netan confesatu eta comulgatu, eta edoceñ Eleiza bisitatzearequīñ, errezatuaz bertan Aitan Santuaren intencionaraco. Eta gauza oec eciñ eguiñ baditzte gaizqui daudelaco, confesoreac badute escubidea ordañez beste batzuec emateco. Esandako indulgentzi oec guciae daude emanac betico, eta aplicatu litezque purgatorioico anima bedeincalatuac-gatic.

7.<sup>era</sup> Billera santu onetako illengatic Meza ematen danean, Congregacioco Eleizan dauden aldare guciae dira pribilegiatuac.

Indulgentzi oec guciac darartzi «*Ora-ciones para hacer la Visita y otras pro-vechosas a las Jóvenes de la Asociación de las Hijas de la Purísima e Inmaculada Concepción de la Bienaventurada Virgen María*» icendatzen dan liburukoac. Madriden 1877-garren urtean Aguadoren alargun eta bere semearen moldizquiran Eleizako buru jaunaren baimenarequīñ argitaratuac; eta jarri dira emen, liburucho artan dauden eran.

## MARIAREN ALABAC

### Congregacioco sarreran esango duten Oracioa

---

Maria Birgiña guciz Santa, Jaungoicoaren Ama, Bicitza gurea, Poz gurea, eta Jaungoizcoaz campora gure esperanza guztizcoa. Nic, zure serbitzari izatea mereci ezpadet ere, uste gucia zure erruquitasunean ipifliric, eta Zu serbitzeco deseo audi batez iracequiric, berecitzen zaitut gaurco egunean ce ruco Aingueru eta Santu gucien aurrean nere jabe osotzat, nere Ama adoragarritzat eta nere bitartecotzat, eta bertatic erabaquitzen det, Zu, nere bicitzaco egun eta une gucietan leyalquiro maitatu eta serbitzea, seculan ez esan, ez eguiñi, ez eta nai ere zuri zor dizugun errespeto eta onraren contraco gauzaric,

oro-bat ez ontzat ematea beñere  
nere mendeco iñore Zu naigabe-  
tzecho esan edo eguiñ lezaqueanic,  
eta, nere icena Zure Sortze chit  
garbico alabaen billerari eman dio-  
dan ezqueroz, sayatuco naiz, eta  
iduquico det contu andia Congre-  
gacio orrec nigandic escatzen duen  
gucia seguitzeco; eguiñ eta eguiñ-  
go det al gucia lurtaren gañe-  
tican loiqueriazco pecatu ori botaz-  
eco, leyatuco naiz orrelaco itz-  
queta eta canta modu ciquiñ eta  
nazcagarri ori galtzeco: bada izanic  
Zu, Birgiña eta Ama guztiz garbia,  
chit gorrotogarria izan bear zatzu  
itz-eguite loi, nazcagarri, eta cen-  
tzuaren antza duen iñori ez dago-  
quion ori. Escatzen eta erregutzen  
dizut ¡O erruquizco Ama! Zure  
Seme maiteac nere alde isuri zuen  
odol preciotsuagatic, ar nazazula  
zure mirabeen artean: lagundu za-  
dazula nere premietan, irichi zaiz-  
quidatzula bear ditudan graci eta  
laguntzac; eta batez ere; ez naza-

zula desamparatu eriotzaco orduan; ezpada une artan are biciroago bear didazu lagundu, zure debotoacquiñ eguiñ oj dezun becela, gorde nazazu nere tentaciōtan; ayeña ezazu nigandic Satanas; datocela nere alde Aingueru Santuac; piscortu itzazu nere biotzean Fede, Esperanza eta Caridadea, eta indartu nazazu birtute oen lanac egiteco; eta indazu pacientzi umil bat nere gogoa zure Semearen borondatera macurtu, jarri, eta eta beti erabiltzeco.

Jesus, Maria eta José, nere biotzanimac ematen dizquitzutet.

Jesus, José eta Maria, ampara, ezazute nere anima azqueneco agonian.

Jesus, Maria eta José, paquezco descantsua nere animac izan dezala eguzkute. Amen.



**AMA BIRGIÑAREN SORTZE  
CHIT GARBIA**

## **AMA BIRGIÑA BERE sortze chit garbian bisitatzeco esango diran Oracioac**

---

Bedeincatua eta alabatua izan  
dedilla Ama Birgiñaren sortze chit  
garbia.

*Gurutze Santuaren etc.*

## **A G U R R A**

Bedeincatua izan bedi, Maria,  
Zure garbitasun ori;  
Bada Jainco bera da gozatzen  
Beguira edertasun ori.  
Zuri ceruco Princes aundia  
Gaurtie esqueintzen nago ni,  
Anima, bicitza, eta biotza.  
Ez utzi, arren, zure ume oni (1)

---

(1) Bersh oec esateagatic dande emanac 39.600  
eguneko indulgentziac edo harcamenac; eta Agur  
*Maria gaziz garbis* esan da irabazien dira 2.580  
egunecosat eta bestie aimbeste *Pecatu gabe sortua*  
esateagatic.

## **LENDABICICO ESCAERA**

### **Garbitasuna iristeco**

---

Nere Ama maitea, ar zazu zure manlupean nere gaztetasuna, ni eta nere lagun guztiac gordet gaitzatzu etsayen lazoetatic; gure anima gasoac cupida gabe ondatu nai lituzqueten araco etsai gogor ayetatic, mundu galduaren losencha eta engañoetatic, infernuco ispirituauren tentaciōtatic, eta aragui argalaren griñā biurri eta guranrieta-  
tic. Erregutu zayozu beti zure Se-  
me Jaungoicoari, nere eta lagun  
gucien alde, bada bertatic itz ema-  
ten dizugu zure alaba eguiazcoac  
izango guerala, eta diguzun amo-  
rioari, amorioarequiñ erantzungs  
diogula. Irichi zaguzu beragandie  
añ bearrac ditugun umiltasun eta  
garbitasuna, eta gure biotzac Jaun-

goiarequiñ zurequico amoriozco su-garretan beti egotea. Amen.

*Aita gurea, Abe Maria, etc.*

## BIGARREN ESCAERA

### Bere bici-estadua auqueratzen soma on bat Izateco

---

Arguitu nazazu ceruco arguiaren chimpant batequin, onen bidez ja-quiñ dezadan, nola eguiñ bear dedan Jaungoicoaren borondatea eta zurea, gogora-eraci zaizquidatzu pensamentu onac nere bici-estadua artzen uts-eguiñ gabe; Jaincoaren probidenciac deitzen nauen ura auqueratu dezadan; auquera au izan dedilla betico zoriontasunera era-mango nauen guiarria; Jaungoicoaren gracia eta laguntzarequiñ artu nai det, mundu onetako nere bici-

tza laburrean. Bera onguien serbitu eta amatu dezaquedan bici-estadua; au izan dedilla bada, zure alaba eguiaz̄oa eguiñ, eta betico salbacioa iristeko gayean paraco nauena.

*Aita gurea, Abe Maria, etc.*

## IRUGARREN ESÇAERA

### Billera Santu onetako lagun-sa- llac ugaritzeco

---

Gueitu itzatzu Zure sortze chit garbi eta mancharen cutsuric ga-bea onratu eta alabatzen sayatzen diran coro edo sall oyec, parte izan dezaten zu ornitzen zaituzten ceruco argui eta garbitasun miragarrian; izan bitez Jesu Cristoren esposac ugarituco dituen birtutezco iturri bat becela, Birgiñtasunezco doai baliotsua ceñ estimagarria eta Jaungoicoaren gustocoa dan eza-guturic, artu eta gorde dezaten,

irautean dutela sendo asmo santu orretan, egoteco beti zu alabatzen gortean zorioneco eta lagun atseguiñgarrien artecoen guisan; eta ezkontza santuraco beren biotzetan jayera gueyago sentitzen dituztenac, prestatu ditecen bicimodu onéc escatzen dituen birtuteacquiñ, izateeo emazte leyal, eta ama on batzuec, Jauñgoikoaren beldurrezcoac eta lagun urcoacquiñ ejemplo on eta probechuzcoac.

*Aita gurea, Abe Marla, etc.*

## LAUGARREN ESCAERA Pecatarien on-biurreraco

---

Socorritu itzatzu, araco gure aizpa maite tentaciozco ariean nasturie, betico galerara daraman bidean dabiltzanac; bial zayezu beren biotzetara argui erraňu bat; aguert eracico diena beren bicimodu galdu

eta ibillera oquerrac eracarri bear  
dien patu triste eta negargarria:  
eman zayezu aifi bearrean dauden  
indarra beren galerazco bicitza eza-  
guturic, bereala utzi eta biurtu di-  
tecen ben-benetan beren Jaungoi-  
coaren gana, pecaturaco bideric  
iñori gueyago eman gabe salba  
ditzaten beren animac, zure Seme  
guziz maitearen odol preciotsuare-  
quiñ erosiac, eta ceruro Aingue-  
ruac poz contentuz bete ditecen  
icustean berriz ere Jesusen escolaco  
icasle eta zure alaba maiteai dago-  
caten eran bici dirala.

*Aita gurea, Abe Maria, etc.*

---

## **BOSTGARREN ESCAERA**

### **Jaungoicoaren aserre bidezcoa gozatzeko**

---

¡O cembañ aldiz araguizco peca-tuae iracequi izandu duen Jaungoi-coaren aserre bidezcoa! Cerutic je-chitaco suac quiscali cituen uri o-soac eta mundua loiquerizco sutan iraquiten cegoelaco, Jaungoicoac gucia ondatu zuen ugalde izugarri batequiñ Noe eta bere echeco zazpi personaz osterontzeco guizaseme, abere, pisti eta bicidun guciac bertan itoaz... Bicio nazca-garri onec dauca mundua galdua... O Birgiña chit garbia, gure erre-guac ondo artu itzatzu indartuaz zureaquiñ batean, ceruac cupituric, aditu dezan biotz biotzetic escatzen dioguna; itzali dezala bicio galgarri

onen sua, ez quiscalico gaituen  
garracquiñ Sodomatarrac quiscal  
cituen becela; ezpada gucioc bere  
gana biurtuko gaituen Jaungoicoa  
ren amoriozco biguñ eta gozoa  
requiñ; ez Noeren demboracoac  
ito cituen becela; gucioc ito eta  
ondatu gaituen ugaldearequiñ, ez  
pada beraren graciaco ur garbi  
eta sendatzalleaquíñ, ezpada beraren  
graciaco ur garbi eta sendatzal  
leacquiñ pizcortu eta alaitu gai  
tzan berac gure griña eragabeac  
eci eta menderatzera, eta zure  
Sortze chit garbi orretan aimbes  
terano distiatzen duten birtuteen  
jarraile eguiazcoac izatera.

*Aita gurea, Abe Maria, etc.*

## ORACIONA

¡O Birgiña chit garbi eta biotz  
oso beraa! icusten gaituzu cemba  
irriscu eta gal-bideen artean ar-

quitzen gueran eta oyetatic eciñ libra quintezqueala gure argalazunagatic, iguzu, bada, zure laguntza eta gracia, oyequiñ indarturic, munduko pecatu eta gaitzaquerietan cutsutu gabe, bizitza garbia eguiñ dezagun, igarotzeco guero zucen salbacioco portu segurura. Amen.

**Oraiñ Ama Birgiñaren biotza gure erruquimentura are eta gueyago limurtzeco, errezatuco da:**

## LETANIA

---

Jauna, erruqui zaitez guzaz.  
Cristo, erruqui zaitez guzaz.  
Jauna, erruqui zaitez guzaz.  
Cristo, adi gaitzatzu.  
Cristo entzun gaitzatzu.  
Ceruetaco Aita Jaungoicoa: erruqui zaitez guzaz.  
Munduaren Erredimitzalle Seme

- Jaungoicoa: erruqui zaitez guzaz.  
 Espiritu Santu Jaungoicoa: erruqui  
     zaitez guzaz.  
 Trinidad Santa Jaungoico bat ce-  
     rana: erruqui zaitez guzaz.  
 Santa Maria.  
 Jaungoicoaren Ama Santa.  
 Birgiñen Birgiña Santa.  
 Cristoren Ama.  
 Jaincozco graciaren Ama.  
 Ama chit garbia.  
 Ama chit casta.  
 Birgiña ceralaric Ama.  
 Ama tacha gabea.  
 Ama sortzetic garbia.  
 Ama maitagarria.  
 Ama miragarria.  
 Eguillearen Ama.  
 Salbatzallearen Ama.  
 Birgiña chit beguiratua.  
 Birgiña beneragarria.  
 Birgiña alabagarria.  
 Birgiña escual andicoa.

Birgiña beraá.  
Birgiña leyala.  
Birtute gucien ispilla.  
Jaquinduriaren eser lecua.  
Gure atseguiñ ecarlea.  
Ontzi espirituala.  
Ontzi miragarria.  
Debociozco ontzi bicaña.  
Arrosa misteriosoa.  
Dabiden dorrea  
Marfillezco dorrea.  
Urrezco echea.  
Elcartasunezco cucha.  
Ceruco atea.  
Egun sentico izarra.  
Erien osasuna.  
Iecatarien gorde-lecua.  
Atsecabetuen pozquidatzallea.  
Cristauen laguntza.  
Aingueruen Erreguiña.  
Patriarquen Erreguiña.  
Profeten Erreguiña.  
Apostoluen Erreguiña.  
Martirien Erreguiña.

- ERREGUIÑA  
ERREGUIÑA  
ERREGUIÑA  
ERREGUIÑA
- Confesoreen Erreguiña.  
 Birgiñen Erreguiña.  
 Santu gucien Erreguiña.  
 Jatorrizco pecatuaren manchaga-  
     be sortutaco Erreguiña.  
 Errosario chit Santuaren Erre-  
     guiña.
- V. Munduko pecatuac quentzen  
 dituzun Jainkoaren Bildotsa.  
 R. Barca zaguzu, Jauna.  
 V. Munduko pecatuac quentzen  
 dituzun Jainkoaren Bildotsa.  
 R. Adi gaitzatzu, Jauna.  
 V. Munduko pecatuac quentzen  
 dituzun Jainkoaren Bildotsa.  
 R. Erruqui zaitez guzaz.

### A N T I F O N A

---

¡Ceiñ ederra ceran nere maitea,  
 oso garbia, mancharic gabea! zure  
 soñecoen usayac eraiten die mun-  
 duco uquendu gozo guciai.

## O R A C I O A

---

O Jaungoicoa, Ama Birgiñaren sortze chit garbiaren bidez zure Semeari beraren diñaco bicilecua prestatu ciñiena! erregutzen dizugu, onec igaro bear zuen eriotza aide surrez icusten cenduelaco, bere Ama mancharen cutsuric gabe garbi gorde cenduen becela, ala, beronen bitartez iguzula guri ere, oro bat garbi Zuganatzeco gracia. Amen.

*Emen bacoitzac erregutuko da premian arquitzen diran billera santu onenetako lagunacgatic, ill dirunacgatic, gure Erreinuko zoriontasunagatic, eta Erligio saintuaren gueitze eta ede tasunacgatic: eta guero esango du ondorenko.*

## ERREGUA

---

Zure amparuzco babesean jartzen guera, Jaungoicoaren Ama, Santa, ez utzi; arren entzun gabe gure premiatan zucentzen dizquitzugun erreguac; ezpada libra gaitzatzu perill gucietatic, o Birgiña bedeincatu eta gloriaz betea.

Agur, Erreguiña, erruquimentuzko Ama, gure bicitza, gozotasun eta esperanza; Agur Zure deyez gaude Eva-ren ume deserrituoc, zugana suspirioz gaude, negarrez, malcozco ballera onetan. Ea, bada, gure bitarteko cerana, itzuli itzatzu gugana zure begui urricaltsu orieç, eta deserri onen ondorean era cutsi zaguzu Jesus, zure sableeco frutu bedeincatua. ¡O biotz bera! ¡O urricaltsua! ¡O Maria Birgiña gozoa!

V. Jaungoikoaren Ama Santa,  
erregutu ezazu gugatik.

R. Cristoren aguinduen diña-  
coac eguiñ gaitean.

## BUCAERA-ERREGUA

---

Birgiña eta Jaungoikoaren Ama,  
ni esqueintzen naitzatzu zure ala-  
batzat, eta zure garbitasunaren on-  
tan eta glorian esqueintzen ere  
dizquitutz nere beguiac, belarriac,  
mingaña eta biotza, nere gorputz-  
animac eta naicen guztia; eta erre-  
gutzen dizut, irichi zadazula egun-  
daño guevago pecatu bat bacarra  
ere ez eguiteco gracia.

Ama, onà emen zure alaba.  
Ama, onà emen zure alaba.  
Ama, onà emen zure alaba.

Zugan nere Ama chit gozoa,

daucat jarria nere uste osoa, ez naiz egundaño icusico lotsatua.

Agur Maria chit garbia.

Pecatugabe sortua.

Bedeincatua eta alabatua izan dedilla Ama Birgiñaren sortze chit santu eta mancharen cutsuric gabea.

*Aita Santu Pio seigarrenac eman cituen eun eguneco barcamen edo indulgentziac Bedeincatua eta alabatua asten dan au-reco oracio au esaten dutenentzat; bes-te eun egunecoac Zure amparuzco babe-sean, etc. eta Agur Erregiña esateagatic, eta Pio zazpigarrenac irureunecoac Letania errebatzeagatic.*

*Birgiña eta Jaungoikoaren Ama bucae-raco etreguagatic daude emanac mila eguneco indulgentziac.*

---



## AMA BIRGIÑAREN

Sortze chit garbiaren  
billeraco alabac, beren Ama maite eta  
berecia onratu eta alabatzeco egiten  
dituzten eliz-punciotan, erregiña  
soberanari zuentzen diozcaten

### C A N T A C

---

*Emen gauzcatzu Ama,  
Emen zure aurrean,  
Artu gaitzatzu, arren  
Zure amparupean.*

## 1

Amparti billa gatoz  
 Zure itzalera  
 Esanaz, mancha gabe  
 Sortua izan cera:  
 Jaunac icusirican  
 Zure garbiera,  
 Pozez dizu ere esaten  
 Guztiz cera ederra.

## 2

Atseguiñ artzen dezu  
 Anima onetan,  
 Gorde bada gu garbi  
 Gorputz animetan;  
 Erori ez gaitecen  
 Pecatu saretan  
 Etsayac prestaturic  
 Beti dauzcanetan.

## 3

Centzua argui zadazu  
 ¡Ama erruquitsuenal!  
 Estadu bat artzeco

Jaunac nai duena;  
Bera ondo serbitzeco  
Neretzat onena,  
Zure gloriara guero  
Eraman naiquena.

4

Gueitu itzatzu Maria  
Gazte debotoac  
Oro bat zu onratzen  
Zaituzten coroac:  
Doncellac izateco  
Zure antzeocoac  
Ta ezconduac emazte  
Bicitz garbicoac.

5

Pecatu bideetan  
Dibiltzan tristeac  
Gorde bitza Maria  
Zure ilzalpeac;  
Uziric beren culpa  
Ta utsegunteac,  
Artu ditzan beretzat  
Jaungoico maiteac.

Pecatu loyac dute  
 Jauna asarratzen  
 Gu galtzeco ezpadezu  
 Bera zuc gozatzen,  
 Ona zure alabac  
 Guera bateratzen  
 Ta graci au dizugu  
 Umilqni escatzen.

¡O erreguiña aundia  
 Ceru-lurrecoa,  
 Iguzu, arren, birtute  
 Castidadecoa,  
 Lore ederra eta  
 Paregabecoa  
 Guizona duena egiten  
 Ainguero antzecoa.

Milla esquer o Maria  
 Dizquitzugu ematen  
 Zure mantu eder pean

Gaituzulaco artzen:  
Amparu orren laguntzac  
Gaitula indartzen  
Zure alaba eguiazcoac  
Beti izan gaitecen.

*Emen gauzcatzu Ama, etc.*

V. In Conceptione tua, Virgo,  
inmaculata fuisti.

R. Ora pro nobis Matren, cu-  
jus Filium peperisti.

## O R E M U S

---

Deus, qui per inmaculatan Virginis Conceptionem dignum Filio tuo habitaculum præparasti: quæsumus, ut qui ex morte ejusdem Filii sui prævisa, eam ab omni labore præservasti, nos quoque mundos ejus intercessione ad te pervenire concedas. Per eumden Christum Dominum nostrum. Amen.



